

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arantzazu

Aurkibidea

Udalerria: Arantzazu

Sarrera



Arantzazu Bizkaiko erdialdean dagoen udalerrri txikia da, Arratia eskualdeko bihotzean. Arantzazugoiti, Olarra eta Zalbide dira herriko auzo nagusiak. Udalerriko mugei begiratzen badiegu, Igorre dauka iparraldean, Zeberio mendebaldean, Dima ekialdean eta Artea hegoaldean. Mendebaldeko euskalkiaren barruan kokatuko genuke Arantzazuko hizkera, Arratiako hizkeraren barruan hain zuzen ere.

Argazkia: Etxaburu

- **Biztanleak:** 360
- **Euskaldunak:** %86,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **30**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **30**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Felix Arkotxa Urkiri (1930)



Zeberion jaio zen, Ibarrondo auzoko Etxetxikerra baserrian. Ama Zeberiokoa bertakoa zuen eta aita Orozkoko Urigoitikoa. Zazpi neba-arrebatatik gazteena da Felix. Ibarrondotik Arantzazura joateko oihitura eduki dute beti, errotara eta tranbiara esaterako. Horregatik, ondo baino hobeto ezagutzen du herria. Gero, gainera, Arantzazura ezkondu zen eta harrezkero bertan bizi da. Felix Igorreko maristetan ibili zen mutikotan eta gero Lemoako harrobrian eta Firestonen egin izan du behar. Beti eduki izan ditu gustuko ganaduak eta baita ortua ere, horregatik oraindik ere baserriko beharretan ibiltzen da. Andreagaz batera egin genion elkarriketa, [Begoña Landajorekin](#). Baserriko bizimoduaz, eskolako kontuez, jaiez eta lehengo ohiturez hitz egin genuen eurekin egon ginenean.

Matilde Artetxe Egiluz (1937)



Gerra sasoian ebakuatu behar izan zituzten eta Bilbon jaiotzea suertatu zitzaion, baina arantzazutarra da Matilde. Ama Zeanurikoa zuen eta aita Arantzazukoa bertakoa. Baserrian bizi izan da beti eta ondo ezagutzen ditu bertako lanak eta bizimodua. Gaztetako kontuen gainean egin genuen berba berarekin egon ginenean eta baita baserriko orduko bizimoduaz ere, besteak beste. [Maria Lourdes Etxebarria Inunziaga](#) lagunarekin batera elkarriketatu genuen.

Maria Lourdes Etxebarria Inunziaga (1938)



Arantzazun jaio zen, Elizondon, eta gurasoak Urkizukoak (Igorrekoak) izan zituen. Baserrian bizi izan da eta ondo baino hobeto gogoratzen ditu orduko sasoiko kontuak: gorputzeko garbiketa nola egiten zuten, zer jaten zuten, beharrak... Kontu hauei guztiei buruz hitz egin genuen berarekin egon ginenean. [Matilde Artetxe Egiluz](#) lagunarekin batera egin genion elkarriketa.



Maxima Inunziaga Olabarrieta

46 urtean serora izandakoa da. Panderojolea ere izan da.

Agustina Iza (1937)



Dimako Artaun auzoan jaio zen eta bertan eman zuen umezaroa eta gaztaroa. Gero, Arantzazura joan zen. Gurasoak ere bertakoak zituen, Dimako Artaunekoak. [Carmen Ordeñana Uriarte](#) lagunarekin batera egin genion elkarrizketa. Agustinak eskolako kontuak kontatu zizkigun eta baita baserriko bizimoduaren ingurukoak ere.

Begoña Landajo Bernaola (1929)



Dimako Biteriño auzoko Abasolo baserrian jaio zen. Ama Dimakoa bertakoa zuen eta aita Igorrekkoa. Bost neba-arrebatatik hirugarrena da Begoña. Zortzi urte zituela, ama hil zitzaien eta neba-arrebek etxetik irten behar izan zuten. Hortaz, Begoñak hiru urte eman behar izan zituen Sondikako komentu batean mojekin. Bertan, bordatzen ikasi zuen. Gero, etxera itzuli zen eta amamarekin geratu zen baserrian, harik eta Arantzazura ezkondu zen arte. Harrezkero, Arantzazun bizi da. [Felix Arkotxa](#) gizonagaz batera egin genion elkarrizketa. Baserriko bizimoduaz, eskolako kontuez, jaiez eta lehengo ohiturez hitz egin genuen eurekin egon ginenean.

Karmen Ordeñana Uriarte (1920)



Arantzazun jaio zen Urubi baserrian. Ama Igorrekkoa zuen eta aita Zeanurikoa. Gerra sartu zenean Iruñan egon zen neskame. Etxeko ugazabek Donostiara eraman zuten eta bertan pasatu zuten gerra sasoian. Errepublika garaiko eskolaz hitz egin zigun Carmenek berarekin egon ginenean, maistrez, gerra garaiaz eta gaztetako urteez, besteak beste. [Agustina Iza](#) lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Hilekoarekin ezin laranjak jan

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Egiluz, Matilde; Etxebarria Inunziaga, Maria Lourdes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ATZ-001/011
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:24:52. **Bukatu**: 00:26:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Matildek anekdota bat kontatzen du: hilekoarekin zegoenez, laranjarik jaten ez zion laga amak.

Transkripzioa

- Matilde: Esnea biltzen aurien, saldu Bilbora, ezta? Baia tia bat euki nauen nik solterea, krieda. Ta hareri biltzean notsen kantintxu baten esnea egun guztietan. Ta gero, harek iten oskun parau beharrekoan, ba, naranjak naranja denporan ta, ba, ostantzean be gabonetako zeozer edo holan. Eta biltzean ituzen naranjak, ba, erosi bost kilo edo hamar ta etxean berak euki, baia gero botaten ituzen kantinean barruan honan e...

- Maria Lourdes: Ba kabitzen dizenak, bost-sei.

- M: Bai, honan. Bueno, bale. Ta, bueno, kantina hori hartu ta banoa naranjokaz etxera ta... bueno. Domekea. Ordun probau be ez, pentseu be ez. Ta atera itun naranjok bazkaiteko hara ganera ta batari zati bet ta besteari ha ta besteari hori ta niri be bai. "Ra!" hartu nauen ta "Ez —amak — zuk ezin zeinke jan", "Ostera?" ta "Ez, regleagaz egon ezker ezin de jan. Binagrea deko ta". Naranjea garraztxue, ta bina... garratza dala ta... ba, egon ezker regleagaz ezin leikela jan.

- Ta ez zindun jan.

- M: Bai zera! Jan ez ta nik pasau nauen ganea ha naranjea jateko!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Arropak sutako hautsarekin garbitzen (ATZ-001/002)

Bizimodu pobrea zegoen baina ondo bizi ziren. Sutako hautsarekin edota xaboiarekin garbitzen zituzten arropak.

2. Beheko sua (ATZ-001/003)

Beheko sutan lapiko gorria izaten zuten, astaduna. "Latzue", "maskillue"... egoten zirela esaten dute. Lexikoa. Erremolatzak egosi egiten zituzten eta irinarekin edo zaiarekin nahastuta txerriei ematen zieten.

3. Argi bakarra etxean (ATZ-001/004)

Argia bakarra izaten zuten; kortako beharretan erabiltzen zuten eta bitartean sukaldea ilunpean egoten zen. Han bukatutakoan, sukaldera jasotzen zuten argia. Arropak eguzkitan zabaltzen zituztela kontatzen du, zuritu zitezen.

4. Gorputza astean behin garbitzen zuten (ATZ-001/005)

Anekdota bat kontatzen dute erre kara uger egitera joaten zirenekoa. Astean behin garbitzen zuten gorputza. Lurrina urarekin nahasten zuten, aprobetxatzeko.

5. Zorriak kentzeko moduak (ATZ-001/006)

Zorriak izaten zituzten. Askotan trentzak izaten zituen Matildek. Patataren botikarekin hiltzen zituzten zorriak. Orraziak ere izaten ziren, "orrazi-zarratuek". Matilderen amak ilea batuta eta zapiz estalia erabiltzen zuen.

6. Orduko arropak eta artilearekin haria egitea (ATZ-001/007)

Matilderen amak jantzia erabiltzen zuen, amantalarekin. Oinetakoak gehienetan abarkak erabiltzen zituzten. Artilezko galtzak etxean egiten zituzten. Matilderen etxean artilea ardatzarekin egiten zuen bere amak. Artilea artzaiei eskatzen zitzaien, garbitu egiten zen, gero kardatu eta burdinazko pieza bat jarrita egiten zuen haria.

7. Artilezko koltxoiak (ATZ-001/008)

Artilearekin koltxoiak egiten ziren. Zela egiten zen kontatzen du. "Apitz-apitz" geratzen zela diote, harro-harro. Lexikoa.

8. Koltxoiak, kuxinak, mantak eta izarak (ATZ-001/009)

Artoaren zurikinekin, "kapaxekin", egiten zuten. Lehenagoko kontua zen. Kuxinak oiloen lumekin egiten zituzten. Mantak eta izarak etxean egiten zituzten.

9. Gabonetako turroiak (ATZ-001/012)

Gabonetan turroia ematen zieten umeei. Erregeetan Matilderen aitaren eguna izaten zen eta gonbidatuei ematen zien amak lehenengo turroia, eta umeentzat hondarrak izaten ziren.

10. Aste Santuan Zeberiora (ATZ-001/013)

Kanpaia entzuten zutenean, arrosariora joaten ziren. Pozik joaten ziren, etxetik irtetzearen. Oparitarako behar zutena ekartzen zieten, baina gauza txikiak. Anekdotak bat kontatzen du Matildek. Aste Santuan Zeberiora joaten ziren eta arropak besoetan eraman behar izaten zituzten. Orduan jantzen ziren lehenengoz arropa berriak.

11. Zeberioko sermoiak (ATZ-001/014)

Zeberion sermoi gogorrak egiten zituzten Aste Santuan. Pasadizo barregarria kontatzen du. Zeberiotik berriz etxera etortzen ziren. Tarteka mutilekin etortzen ziren.

12. Auzo batek besteari oiloa lapurtu (ATZ-004/002)

Auzo batek besteari oiloa lapurtu zioneko pasartea kontatzen du.

13. Babak harrapatzen (ATZ-004/003)

Andre batek, ilargiaren argipean, auzokoaren babak batzen zituen.

14. Lehengo eta oraingo apaizak (ATZ-004/005)

Lehengo eta oraingo apaizen arteko aldea.

15. Serora lanak (ATZ-004/006)

Serora zela, kanpaiak jo, atea zabaldu eta kandelak pizten zituen.

16. Igorreko erromeria (ATZ-004/007)

Igorren erromerian soltean dantzatzaren zuten. "Aramaietakoak" (abe marietakoak) jotzerako, etxeratu egin behar izaten zuten. Dultzaina, soinua eta panderoa jotzen zuten. Aita albokaria zuen, Agapito.

17. "Gure amamak kamaran ditu" koplak (ATZ-004/008)

Maxima panderojolea da. `Fasio´rekin jo izan du. Koplak bat abesten du. "Gure amamak kamaran ditu, aite-semiak jokuan; osterak bere egongo dira saltsu nabarrak auzuan".

18. Eduarda eta Maurizia koplariak (ATZ-004/009)

Eduarda aipatzen du, bertotan aritzen zena. Maurizia ere aipatzen dute.

19. Erromerietako dantzarako arauak (ATZ-004/010)

Erromerietako dantza kontuak. Mutilek dantza eskatzen bazuten eta neskek ezetz esan, dantza hori bukatu arte ezin izaten zuten beste mutil batekin dantza egin. Mutilen arteko borrokak izaten ziren.

20. Misioetako elizako kantua (ATZ-004/014)

Elizako kantua abesten du, misioetakoak. Misioak zelakoak ziren azaltzen dute.

21. Neskame Algortan (ATZ-004/018)

Neskame ibilitakoa da, Algortan. Senar-emazteek banatuta lo egiten zuten.

22. Igorren euskaraz, Areatzan erdaraz (ATZ-004/019)

Igorren dena euskaraz egiten zen eta Billaron (Areatzan) erdaraz.

23. Ezkongaiaren arreoak (ATZ-004/021)

Bere gazte garaian, auzoko neska bat ezkondu egin zen eta arreoak zelakoa zen azaltzen du.

24. Umeentzako lo-kanta (ATZ-004/022)

Senarra auzokoa zuen. Seme-alabei abesten zien lo-kanta kantatzen du. Umeentzako hizkera.

25. Ume txikiaren zaintza, lan handia (ATZ-004/023)

Umea mantarrean erabiltzen zuten, eta txizta egiten zuten bakoitzean, aldatu egin behar izaten zen. Lan handia izaten zen amentzat.

26. Zeberiora ihesi gerra garaian (ATZ-004/026)

Gerra hasi zenean, urte eta erdiko umeak zeukan. Zeberion egon zen. Senarra soldadu joatera behartu zuten.

27. Serora noiz hasi zen (ATZ-004/029)

Don Marzelo apaizak eskatu zion serora lanak egiteko. Gosaria ematen zien apaizei.

28. Kanpai-motak (ATZ-004/030)

Kanpaiak jotzen zituen. Kanpai-motak zelakoak ziren azaltzen du.

29. Eduarda, Maurizia eta `Karakol´ (ATZ-004/033)

Bertsolariak, kontulariak... Eduarda eta Maurizia aipatzen dituzte.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com